

## BAKIOKO ITXAS-ERTZEKO TOPONIMIA

JUAN MARIA MARKAIDA

Emen dakardazan Bakioko itxas-ertzeko toponimoak edo izenak, iru gizonei itaundu ondoren aukeratuak izan dira, euretariko bi beti errian bizi izan dira, bat jantoki baten ugazaba da, bestea baserritarra baiña sarri itxasora jotan izan dana, batez bere lapak arrapatzen eta itxas ertzean bizi dana, irugarrena, barriz, Mungiko Institutoko irakaslea, Bakiotarra, urte batzuetan erritik kanpora egon arren iñoiz bere erriegaz artu emonak galdu ez dituzana. Izen oneek aukeratu dituana bere ogei urtean bizi izan da Bakioko errian eta itxas gizonakaz artu emon andiak euki ditu.

89.— *Kasetepe*. Basorda arrizko ondartzat bat zan, bertan gaur atomo indarrezko lantegia egin dabe, emen Bakio aldetik, karabiñeruak etxetu bat euken, beko aldeari Kasetepe esaten jakon.

90.— *Mugitxe*. Orain atomo indarrezko tresnea dagon tokia Mungiaarena zan, Bakio eta Mungiko lurraldearen ondoan etxe bat egoan, ortik mugitxe izena.

91.— *Usategi*. Izen au basoarte baten dago, itxasoz nekatuta datozen usoak ementxe gertzen dira.

92.— *Uredarione, Urebarne*. Leku oneri geienak Uredarione deitzen dautse, baiña batzuk Urebarne, emen erreka bat dago eta itxasora kasada eran ura jautzen da.

93.— *Gelatxueta*. Leku onetan, basoan, goian txabola txiki bat aurkitzen da bearbada, usoak arrapatzen joaten zinarentzat estalki bat izango zan.

94.— *Gauetas, Gaubietas*. Leku au gaur atomo indarreko lantegi eta aitz batzuen artean aurkitzen dan itxas ertz bat da.

95.— *Astondo, Astondope*. Peninsula antzeko aitz batzuei deitzen jake onela.

96.— *Andiño-barrena*. Astondo eta Andiño bitartean ondartzat antzeko itxas ertz bat dago, toki batzuetan ondarra eta beste batzuetan arri bolak daukoz.

97.— *Andiño*. Bakioko itxas ertzean aurkitzen dan aitzik luzeena aitz au da, arrantzaleak lurrez arraiñak arrapatzen ibiltan diranak, ondo dakie toki onetan arrain asko egoten dala, batez bere, lupin eta muxerrak.

98.— *Tiromune*. Andiñotik Bakiorantza troka ikaragarri bat dago, leku au arrain toki oso ona da, arrantzaleak bertatik jaurtitzan ditue euren tresnak, bearbada orregaitik deitzen jako Tiromune.

99.— *Eresko*. Andiñotik Bakiorantza barrankoa pasa ondoren bean aitz batzuk aurkitzen gara Andiñoko puntan eta emen bere lanperna gozo ugari arrapatzen ditue itxaso-zaleak.


100.— *Siskintza*. Toki orretara jatsitzea oso gaitza da baiña aitzetara eldu ezker ez da ain zailla lanperna ederrak arrapatzea.

101.— *Bareti. Bareti txiki*. Kantauriko itxasoa sarritan amorruturik gogor ibiltan da, baiña anoremenetan aitzmutur osteetan egoten dira itxaso barea dagon tokiak, au orretariko leku bat.

102.— *Bareti nagusi*.

103.— *Fraiatxe, Frailatxe*. Euskalerriko itxas-ertzeetan badira fraille antza dauken aitzak, erriak fraille antza daukelako fraillatze deitzen dautse.

104.— *Longa*. Bakioko kaira eldu baiño len,



birjilandako lurmuturrera eldu baiño len ugarte batzuk dagoz, bakiotar asko joaten dira bertara lapa gozoak arrapatzera.

105.—*Koba*. Itxas ertzeetan urak eginta badagoz zulo batzuk. Zenbat ipuiñ sortu ete dira itxas-ertzeetako errietan zulo oneek estaltzen dabezan misterioetatik. Gaur Pitorro deitzen jaken txoriak bizi dira aitz-zulo onetan.

106.—*Ortutxu*. Gaurko udalariek emen inguruan dagozan ugarte inguruari «Los Canales» deitzen dautse.

107.—*Birjilandape*. Lur mutur onetan, goian, txabola andi bat dago, erriko zarrak esaten dabe, len aldietan, karabiñeruek txabola onetatik zaintzen ebela itxas inguru au.

108.—*Sarrako*. Bakioko kaiaren sarreran aitz-mutur luze bat dago, mutur orreri deitzen jako Sarrako.

109.—*Muxerrarri*. Muturrean bertan, gaur arrain gitxi arrapatzen da, baiña erriko zarrak diñoenez leen arri orretan muxer asko egoan.

110.—*Kurtzekoatxa*. Atxean dagon zerbaite-tik artzen dabe emengo inguruko atx askok euren izena, muxerratxa, muxer asko dagon tokia, pitorroen atxa pitorro asko egoten dan tokia, gasteluko atxa gastelua dagon atxa eta onelan beste toponimo edo izen askok.

111.—*Itxasondo*. Izen au Bakioko ondartzan aurkitzen da, izen barria dirudi.

112.—*Bisgane*. Izen au bere ondartzan dago eta bits asko egoten dan inguruan.

113.—*Itxasbegi*. Ziur, ziur izen au bere barria da, ondartza erdian aurkitzen da.

114.—*Arimune*. Naiz izen au ondartzakoa izan, ez dogu uste barria danik, ondar tontor andi bat egoan lekuari deitzen jako onela.

115.—*Kresala*. Ziur ziur izen au bere barria da.

116.—*Ondarralde*. Ondartzaren ertz bateri deitzen jako onela, bertan itxasoratzen dan errekeari, barriz, ondarreko erreka eta inguruan dagon baserri bateri Ondarre.

117.—*Ondarrekoatxa*. Ondarreko erreka ondoan, itxas-gora danean ugarte biurtzen da, atx andi eta naiko luze bat da.

118.—*Kasetape*. Orain txalet batzuk dagozan tokian len karabiñeruen etxetxu bat egoan bere azpiko atxari kasetape deitzen jako.

119.—*Atxgorri*. Emen inguruan igeltso lerro bat dago, bere kolorea gorria da orregaitik deitzen jako atxgorri, udelariak leku oneri «peña roja» esaten dautse.

120.— *Askada*. Neguko ekaitzetan oleatu ikaragarriek egoten dira toki onetan.

121.— *Kurtzepe*. Bakiotik Sanjoaldera kurutz-bide bat egoan, erriko zaarrak diñoe leen Barikuguren egunean kurutz-bidea egiten zala Bakiotik Sanjoaldera, beko alderdiari deitzen jako kurtzepe.

122.— *Sokatxe*. Atx mutur andi bateri deitzen jako onela.

123.— *Atxulo*. Atx arte baten zulo andi bat dago, mare goian dagonean ure ugari sartzen da bertara, leku au oso aberatsa da bai arraiñez baiña batez bere lanpernaz.

124.— *Atxulope*.

125.— *Mendialde*. Atxulo ondotik aurrera jarraitu eskero mendi baten amaierara eltzen gara, itxasora eldu baiño lenago baserri txiki bat aur-

kitzen da bertatik itxasoraiño eltzeke goibera andia dago.

126.— *Dagonatxe*. Sanjoaldeko senaiera eldu baiño len aitx-mutur eta ugarte txiki batzuk aurkitzen dira. Toki oneri bermeotarrak *Kurrilloko-atxa* deitzen dautse.

127.— *Amatza*. Sanjoaldeko senaien erdian dagon atx bat da.

128.— *Aizmotz*. Bakiotarrak San Juan de Gastelukoatxera doan bidearen alde biari (Bermeoko aldeari eta Bakioko aldeari) Sanjoalde deitzen dautse Aizmotz senaie orretan dago.

129.— *Erripe*. Orain bere bai baiña lenago jente asko joaten zan Bakiotik Sanjoaldera eta geienak itxas ertzetik goian mendian egoan bideziorretik joaten ziran, bere azpian egoan itxas aldeari Erripe deitzen jakon.